




LAUDIO UDALA
AYUNTAMIENTO DE LLODIO

2019-2023

Legegintzaldirako Plana



- 01 | Legegintzaldirako Plana, zergatik?**
- 02 | Gure baloreak**
- 03 | Laudio 2023: konpromisoak eta lan-ardatzak**
- 04 | 2019-2023 Legegintzaldirako Plana**
- 05 | Planaren jarraipena eta koordinazioa**



Udalak gardentasunari, gertutasunari, herritarrekiko erantzukizunari eta kudeaketa onari dagokionez hartu duen konpromisoaren barruan, **2019-2023 Legegintzaldirako Plana** diseinatu da, hauteskundeetan aurkeztutako konpromisoak modu argian garatzeko tresna gisa erabiltzeko asmoz.

Legegintzaldirako Plana **kudeaketa-tresna dinamiko gisa ulertu behar da**. Hauteskunde-programa eta gobernu taldea osatzen duten talde politikoen akordioa garatzeko balioko du eta hauek izango dira planaren ezaugarri eta helburuak:

- Legegintzaldirako Planaren metodologiari esker, **Laudioren garapenean aurrera egin** ahalko du Udalak.
- Legegintzaldirako Planak **operatiboa** izateko xedea du: konpromisoak esku-hartze edo jarduketa-ildo zehatz bihurtzeko aukera ematen du, ekimenak eta estrategiak elkarri lotuta.
- Legegintzaldirako Planak **Udalbatzaren norabidea zehazten du**, sare-lana errazten, eta ekintza publikoaren zeharkakotasuna ere bultzatzen du, konpromisoak amankomunean jartzen dituelako eta arloen arteko elkarlana sustatzen duelako. Agindutakoa beteko dela bermatzen du.
- Legegintzaldirako Planari esker udal ekintza **aurrekontu estrategikoan** txerta daiteke, baliabideak erabiltzeko modua ezagututa.
- Horrez gain, **gobernu taldea uneoro zertan ari den** eta konpromisoen betetze maila zertan den jakiteko aukera ere ematen du.
- Legegintzaldirako Planaz baliatuta, **gaitasun teknikoaren eta baliabide-gaitasunaren ikuspegia** txerta dakizkieke konpromiso politikoei, eta, horrela, gauza egingarriak eta egin ezin direnak bereiz daitezke.
- Planak **jarraipen-eredu bat** eskaintzen du, zeinaren bidez ezagutu daitekeen udal ekintzek herritarrengan eta gainerako interes taldeengan duten benetako eragina. Hori dela eta, bizirik dago elementu hau. Horiek horrela, beraz, plana egikaritu bitartean gertatzen direnei erreparatuta, jarduketa-ildoak aldatzen joan daitezke, berriak gehitu daitezke eta beste zenbait kendu edo atzeratu.
- Udalbatzak interes taldeei eskaini ahal dienari buruzko komunikazio-tresna da Legegintzaldirako Plana, kudeaketaren profesionaltasun testuinguru batean kokatua. Hortaz, gobernu taldearen **konpromisoak ezagutarazten eta herritarrei konpromiso horiek partekatzen** lagunduko du Planak.

Jarraian zerrendatuko diren baloreak izango dira gobernu taldearen ekintzen oinarria, eta, beraz, legegintzaldian bideratu beharreko ekintza guztietarako jarraibide ere izango dira:

Epe luzerako ikuspegia

Etorkizuneko Laudio eraikitzen lagundu nahi dugu, ekintza bakoitzak epe ertain eta luzera dituen eraginak baloratuta, eta zuhurtziaren printzipioa nahiz etorkizuneko etekinik handienaren printzipioa aplikatuta.

Iraunkortasuna eta efizientzia

Baliabideen erabilerari dagokionez, zentzuzkotasuna bermatuko dugu. Horretarako kudeaketa iraunkorra aplikatuko da, espero diren emaitzak lortzeko baliabide aproposak erabilia.

Gardentasuna eta gertutasuna

Udal jardunari buruzko kontuak emango ditugu, kudeaketa gardenaren bidez, eta geure burua herritarren nahiz interes taldeen esku jarrita.

Justizia soziala eta aukera berdintasuna

Den denentzat egingo dugu lan, eta bermatu egingo dugu gure udalerrian elkarrekin bizi diren kolektiboen beharrei bidezko erantzuna ematen zaiela.

Sormena eta berrikuntza soluzioetan

Soluzio desberdin eta berritzaileak bilatuko ditugu udalerraren erronketarako.

Zintzotasuna, koherentzia eta prestutasuna

Emandako hitza beteko dugu, zuzentasunez jokatu dugu erabakiak hartu behar direnean eta erabakien helburua Laudioaren eta laudioarren onbeharrez hartuko ditugu beti: zerbitzu publikorako bokazioa dugu.

Talde-lana, kontsentsu-ikuspegia eta profesionaltasuna

Zeharkako politikak diseinatuko ditugu Laudioko herritarrentzat. Horretarako, gobernu taldeko kideen nahiz udal zerbitzu desberdinen arteko komunikazioa oinarritzat izango duten proiektuak diseinatuko ditugu. Gainera, herritarrentzako estrategikoak diren proiektuetan adostasuna lortzeko lan egingo dugu. Horretarako, laudioarrengan eraginik handiena duten elementuei dagokienez alderdi politiko guztien kontsentsua lortzen saiatuko gara, borondate politikoen arabera izan ez daitezela.

2019-2023 aldirako udal ekintzek bost lan-esparru nagusi izango dituzte, eta horietatik izango dira audioarreko hartu ditugun konpromiso nagusiak.

1

Suspertze ekonomikoa eta kalitatezko enplegua

Udalerri ekintzailea, industria modernoa eta aurreratuarekin, eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko hiri-ekonomia sortzailearekin, merkataritza eta ostalaritza Laudioko motore izanda. Laburbilduta: ekonomia aktiboa eta kalitatezko enplegua sortzea.

2

Auzoen erregenerazioa

Laudio kohesionatua, zeinetan landa-eremua eta auzo desberdinak elkar osatuko baituten. Auzoek bizitasuna izango dute, euren beharretara moldatutako kalitatezko zerbitzu publikoekin batera. Auzoek egiten dute Laudio, beraz, espazio atseginak izan behar dira, zainduak behar dituzten mantentze-lanekin.

3

Kalitate-bermea zerbitzu publikoen prestazioari dagokionez

Kalitatezko zerbitzu publikoak, horien prestazioaren bikaintasunera bideratuak, Laudioaren nahiz audioarren beharren inguruko hausnarketa etengabea oinarritua.

4

Promozio eta babes soziala: denontzako udalerria.

Gizarte ireki eta barne-hartzailea nahi dugu, zeinetan emakumeak, gizonak, nagusiak, umeak eta kolektibo guztiak parte izateko eta euren bizi-proiektuak garatzeko modukoa.

5

Kalitate instituzionala eta kudeaketa adimentsua

Ondo kudeatutako Udala, bizkorra, modernoa eta gardena, zeinetan audioarrak diren ekintzen ardatza. Kudeaketa adimenduna herritarren erronka berriei erantzuteko, gure nortasuna eta Aiaran, Araban nahiz Euskadin izan behar dugun tokia berreskuratzeko.

Gure konpromiso edo lan-ardatzetatik abiatuta, 2019-2023 Legegintzaldirako Plana diseinatu dugu, helburu estrategikoak eta egin beharreko lan nagusiak barne hartuta.

2019-2023 aldirako 11 helburu estrategiko...

1. ardatza



1. Jarduera ekonomikoa: industria, merkataritza eta zerbitzuak



2. Kalitatezko enplegua eta ekintzailtza

2. ardatza



3. Auzoen eta landa-eremuaren garapen integrala



4. Lurralde antolaketa adimentsua eta iraunkorra

3. ardatza



5. Kalitatezko zerbitzu eta espazio publikoak



6. Kultura eta kirola aisialdi osasungarriaren motore gisa



7. Elkarrekin sortzea eta berritzea herritarrekiko harremanetan



8. Euskara eta ondarea, gure nortasunaren ardatzak

4. ardatza



9. Babesa eta garapen sozial integralaren aldeko apustua



10. Audio, gazte eta feminista

5. ard.



11. Udal kudeaketa adimentsua



1. Jarduera ekonomikoa: industria, merkataritza eta zerbitzuak

Zer nahi dugu?

- **Laudioren izaera industrial indartzea**, udalerrirako estrategikoak diren sektoreak indartuko dituzten enpresa berrien bidez.
- **Laudioko merkataritza suspertzea**, gure udalerrria berriro Aiarako merkataritza-plaza nagusi izan dadin.
- **Hiri-ekonomiako sektoreen arteko sinergiak** aprobetxatzea (merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuak) Audioko jardueraren motore gisa.
- **Proiektu berriak** diseinatu eta martxan ipintzea, udalerrriaren garapen ekonomikoan lagunduko duten beste eragile ekonomikoekin lankidetzan.
- Aurrera egitea Audioren garapen ekonomikoan, **turismo-helburu** gisa eta txango natural eta kulturaletarako leku gisa.

Nola lortuko dugu?

- **Tokiko Garapen Agentzia (Laudio Hazi)** eraldatzea eta berrorientatzea, gure ETE-ei, hiri-negozioei eta ekintzaileei laguntzeko espazioa izan dadin.
- Katalogo bat sortzea **Laudioren inbertsio industrialak ekartzeko**, udalerrriaren balio-sorkuntza identifikatu eta enpresetara igarotzen laguntzeko.
- Lankidetzak aktiboa Arabako Foru Aldundiarekin **"Aiala Industrial Lab"** proiektuaren garapenean, Audioren eta ingurunearen suspertze industrialean laguntzeko.
- **Laudio Hazi** arloan **proiektuen, funtsen eta diru-laguntzen zerbitzu bat** martxan jartzea, enpresa-proiektuak eta funtsak erakartzeko udalerrriaren garapenean eragina izango duten proiektuetarako.
- **Laudio Group** programa indartzea udalerriko enpresen arteko sinergiak bilatzeko.
- **Gure ETE-ek izaera berritzaileagoa** izateko neurriak bultzatzea, SPRI-rekin eta Innobasque-rekin lankidetzan, baita berrikuntzaren arloko beste eragile batzuekin ere.
- Audioko **estrategia eta Merkataritzako Plan Estrategikoa berrikustea**, gure merkataritzak dituen erronkak identifikatuta eta horiei aurre egiteko estrategiak garatuta.
- **Lan-esparru berriak martxan jartzea APILL-ekin eta beste administrazioekin** batera, Audioko saltokien eta ostalaritza-establezimenduen egoera hobetzeko.
- Ostalaritzako terrazek buruzko ikerlan bat egitea, horren bidez, Audioko ostalaritza-establezimenduen beharrak kontuan hartuko dituen **terrazen ordenantza arautzaile berria** idatzi ahal izateko.
- Abasto plazan eskuragarri dagoen espazioa eta terraza **aisialdi, ostalaritza eta gastronomia proiektu** baterako aprobetxatzeko bideragarritasun ikerlan bat egitea.
- Udalerriko **jarduera ekonomikoarekin lotutako tasak berrikustea** (JEZ, EIOZ, etab.).
- **Laudio turismoa bultzatzeko plan** bat diseinatzea, naturarekin eta kulturarekin erlazionatutako txangoak bultzatzean oinarrituta.



2. Kalitatezko enplegua eta ekintzailtza

Zer nahi dugu?

- **Ekintzailtza eta enpresa-sormena bultzatzea**, batez ere, Laudioko gazteen artean.
- Laudioko **langabezia tasa murriztea**, lan-munduan sartzeko zailtasun handienak dituzten kolektiboengan arreta berezia ipinita.
- Udalerrian **kalitatezko enplegua bermatuko** duten lan-ereduen aldeko apustua egitea.

Nola lortuko dugu?

- Laudioko **Urteko Enplegu Plana garatzea**, Lanbiderekin elkarlanean.
- **Ekintzaileei laguntzeko eta enpresak sustatzeko zentro bat** martxan ipintzea, enpresa-hazitegiekin, co-working eta networking espazioekin, enpresak eta lehiakortasuna garatzeko espazioekin eta ekintzailtza-enpresa sustatzeko ekimenekin, besteak beste.
- Laudioko **ekintzailtza-programa indartzea**, enpresa-ideiak martxan jarri nahi dituzten pertsonen beharretara moldatutako baliabideekin.
- **Ekintzailtza-mentoreen programa** bat martxan jartzea, Laudion proiektuak martxan jarri dituzten pertsonak eta ekintzaile potentzialak elkarrekin harremanetan jartzeko.
- Programa bat diseinatzea Laudioko eskolekin udalerriko pertsona gazteen artean **ekintzailtza-kultura sortzeko**.
- Laudio Hazi arloan **urteko prestakuntza plan bat sortzea**, udalerriko eta inguruko enpresekin lankidetzan, prestakuntza-eskaintza eta enpresen beharrak bat etorri daitezten.
- Udalerriko enpresekin batera, **lankidetzan-mahai bat martxan ipintzea enpleguaren kalitatea hobetzeko** (aldirakotasuna, lan-baldintzak, lan-arriskuen prebentzioa, etab.).
- Laudioko gazteak erakartzeko programa berriak diseinatzea, **prestakuntza duala bultzatuta** eta enpresak nahiz eskualdean lanbide heziketan diharduten ikastetxeak inplikaturik.
- Esparru europarrean bultzatutako **elkartruke programen hedapena** indartzea.
- **Aiaraldeko garapen agentziekiko sinergiak** sortzea eskualdeko enpleguarekin dauden arazoei konponbide bateratuak emateko.
- **Lankidetzan bilatzea euskal unibertsitateekin** udalerrietan proiektuak garatzeko.



3. Auzoen eta landa-eremuaren garapen integrala

Zer nahi dugu?

- **Auzoetako garapen iraunkorra bilatzea**, espazio eroso eta erosoak lortuta, zeintzuek han bizi diren pertsonentzat zerbitzuak izango baitituzten.
- **Landa-eremu laudioarra berreskuratzea** eta udalerriko hiriguneekin integratzea: landa-eremua sustatzea garapen ekonomiko eta sozialerako espazio gisa.
- **Laudioko espazio bereziak identifikatu eta garatzea**: berdeguneak, aisialdirako espazioak eta espazio kulturalak, identitatea eta proiektzioa dutenak.

Nola lortuko dugu?

- **Garapen Plan Integrala diseinatzea Laudioko auzo bakoitzerako**, horren bidez behar zehaztutara moldatutako azpiegiturak eta zerbitzuak bermatzeko (argiteria, saneamendua, aparkalekuak, konektagarritasuna eta garraioa, mugikortasun horizontal eta bertikala, etab.).
- **Ermuko Plan Berezia berraktibatzea**, eta ingurunea integralki garatzeko estrategia martxan ipintzea: Ermualdeko etxea irekitzea ostalaritzarako nahiz ibilbide turistiko eta kulturalak sustatzeko espazio gisa, programa arkeologikoarekin jarraitzea, etab.
- Konponbide berriak martxan ipintzea **auzoetako irisgarritasuna eta mugikortasuna hobetzeko**, eta, horrela, hiriguneekin integratzeko: landa-bideak hobetzea eta mugikortasun bertikalari buruz hausnartzea (igogailuak eta elementu mekanikoak).
- Udal zengotzigoen barruan, **“Auzoko ordezkari/zinegotziaren” figura sortzea**, auzokideekiko, elkarrekeko eta auzoan zein auzorako lan egiten duten gainerako taldeekiko hizketakide zuzena izan dadin, euren beharrak eta kezkek adierazteko aukera izan dezaten.
- **Laudioko mapa berdea diseinatzea**, berdegune berriak eta espazio natural berriak identifikatuta duten balioa emateko eta etengabe hobetzeko.
- **Arraño mendia berriro erabiltzea herritarrek berdegune gisa** goza dezaten: zerbitzuak eta espazioak.
- Erakundeekin batera lan egitea **landa-eremuko despopulazioa gelditzeko**, gure landa-esparruan bizi-proiektuak garatzeko erraztasunak emanda.
- **Laudion sustraitzea** sustatzeko kanpaina bat martxan jartzea.
- **Kultura-programa deszentralizatuak indartzea**, urtero plangintza eginda jardueren programazioa auzoetara ere iritsi dadin.



4. Lurralde antolaketa adimentsua eta iraunkorra

Zer nahi dugu?

- **Udalerriko hirigintza-plangintza** etorkizunera begiratuta biharko Laudio eraikitzeko.
- **Hazkuntza iraunkorraren aldeko apustua** egitea udalerraren identitate-ezaugarria izan dadin: Hiri-garraio iraunkorra, energia garbiak, birziklapena eta ekonomia zirkularra.
- Laudioko **mugikortasun dinamikak** eraldatzea, kutsatzen ez duten sistemen aldeko apustua eginda, gainera, herritarren bizi kalitatea hobetzen dutelako.

Nola lortuko dugu?

- **Hiri Antolamenduko Plan Nagusiaren (HAPO-ren) berrikuspena martxan jartzea**, udalerriko errealitatera eta guztion artean eraiki nahi dugun etorkizunera moldatzeko.
- **Espazio publikoaren erabilera arautzeko ordenantza berriak** garatzea, bermatzeko mundu guztiak gozatu ahalko duela Laudioz, arreta berezia ipinita plazetan eta oinezkoentzako gunetan (Aldai, Alberto Acero, etab.).
- **Bide berde berriak** martxan jartzea Laudioko leku desberdinetan, azpimarratuta oraindik diseinatu eta garatzeko dagoen **Orozkoranzko parke lineal berria**.
- **Hiri Mugikortasun Iraunkorrerako Plana** diseinatzea, besteak beste, Laudioko espazio desberdinak konektatzeko hiri-autobus elektrikoa martxan jartzeak izango lukeen bideragarritasuna aztertzeko eta bizikleta bultzatu beharreko garraibidetzat jartzeko (ibilbideak, bidegorriak, aparkalekuak etab.).
- Laudioko inguruan udalerriri arteko **eraztun berde bat martxan jartzea** bideragarria ote den aztertzea.
- **Udalerriko puntu beltzen mapa** etengabe eguneratzea, eta gutxika horiek guztiak ezabatzeko lan egitea: segurtasuna auzo guztietan.
- **2030 Agenda prestatzea**, udalerriri garapen iraunkorrerako planetako helburuak lortzeko egin duen ekarpena balora dadin.
- Birziklapena, ingurumenarekiko jarrera arduratsuak eta **udalerririaren garbitasuna sustatzeko kanpainak**.
- **Españica etxea eraistea** eta zonaldeko bideak hobetzea.
- Laudioko **zabor-bilketarako aho pneumatikoak eguneratzea**.
- Kontratazio publikorako udal klausulak berrikustea, iraunkortasunaren faktorea kontuan hartuko duten **plegu berdeak garatuta**.



5. Kalitatezko zerbitzu eta espazio publikoak

Zer nahi dugu?

- **Udal zerbitzu eta programazioa berritzea**, Laudioko herritarren beharretara eta eskaeretara moldatuta.
- Bermatzea **zerbitzuen prestazioa kalitate-estandar handienekin**, audioarrek merezi duten legez.
- Herritar, merkatari nahiz ostalarientzako **espazio atseginak sortzea**: Espazio garbiak, seguruak eta zainduak, oinezkoentzako eremu gehiago, kale-giroa eta -bizitza.
- Beste erakunde batzuekin lankidetzan aritzea **udal zerbitzu publikoak emateko sinergiak** aurkitzeko.

Nola lortuko dugu?

- Herritarren segurtasuna indartzea, auzokide-orientaziorako polizia-kulturaren bitartez.. Segurtasuna eta bizikidetzako Herri-Behatokiak eguneratuko dute gure diagnostikoa, disinatu beharko diren estrategia zehazteko.
- **Udaltzaingoak kudeaketarako dituen tresnak eta instalazioak hobetzea** eta berritzea.
- **Teknologia berriak** herritarrengana gerturatzea eta udalerrian wifi sareak hedatzeko plana.
- **Araztegi berria martxan jartzea** eta Laudion edateko ura hornitzeko zerbitzuaren iraunkortasuna hobetzeko formulak.
- Laudioko saneamendu- eta hornidura-sarea **gutxika hobetzea**, arreta berezia jarrita auzoetan eta landa-eremuan.
- **Garbiketa- eta mantentze-zerbitzuak indartzea**: Laudio garbia, atsegina eta erakargarria.
- **Plangintza garatzea Laudioko espazio desberdinak atseginagoak izan daitezen** (oinezkoentzako eremu gehiago, oinezko zein ibilgailuak aldi berean ibiltzeko kaleak, espaloiak beharitzea, berriz asfaltatzea, etab.): Zumalakarregi etorbidea, Alberto Acero, Ezka-Zubiaur, Virgen del Carmen, etab.
- **Aparkatzeko zonale berriak** egitea auzo desberdinetan eta Laudioko espazioetan.
- **Lamuza parkea berreskuratzea** herritarrek gozatzeko espazio gisa: Arabako Foru Aldundiarekin batera lan egitea, landare-ondarea berreskuratzea, jarduerak programatzea Kasinoan, etab.
- **Landa-eremuan eskatu ahalako taxia martxan jartzeko bideragarritasun** azterlan bat, landa-eremua eta hirigunearen arteko lotura hobetzeko.
- Erakundeekiko lankidetzara Laudioaren **loturak hobetzeko garraio publiko bidez**.
- **Zerbitzu-gutunen sistema bat garatzea**, udal zerbitzu desberdinak barne hartzeko, bakoitzari dagokion gutunaren bidez.



6. Kultura eta kirola aisialdi osasungarriaren motore gisa

Zer nahi dugu?

- **Kultura, kultura-sorkuntza eta kirolak sustatzea** Audioko herritarren artean, haien osasuna eta bizikaltatea hobetzeko tresna gisa.
- **Audioko herritarrei espazio kulturalak ematea**, baita kiroltarakoak nahiz aisialdirakoak ere, euren beharretara moldatuta, bereziki azpimarratuta Antzokia.
- Audio inguruko erreferentzia-udalerrira gisa berreskuratzea **kultura eta kirol programazioari** dagokionez.

Nola lortuko dugu?

- **Audioko Antzokia eraikitzea** udalerraren kultura-berreskurapenaren giltzarri gisa.
- **Liburutegi eta ikasteko gela** berriak martxan jartzea.
- **Egoitza Zaharra Musikaren Etxe berria bihurtzeko proiektua**; erabilera anitzeko espazioa litzateke, Audioko musika-sorkuntza eta hedapena bultzatzeko.
- **Audioko kulturaren mapa diseinatzea**, espazio eta jarduera berriak antolatzen oinarri gisa.
- **Kultura-, kirol- eta aisialdi-programazioa jasotzeko urteko egutegia** egitea: Eskaintza zabala, egonkorra, irisgarria, askotarikoa eta kalitatezkoa finkatzea.
- **Audiorako hiri-arteko proiektu bat definitzea**: espazio publikoa kultura-sorkuntzarako espazio gisa.
- Pop-rock musika taldeentzako **entsegu-lokalak** gaitzea eta maketen lehiaketa bat martxan jartzea.
- **Gazteleku bat martxan jartzea erdigunean**, ume nahiz gazte audioarrentzat pentsatua.
- **Eskola garaian kirola sustatzeko plan bat**, eta Audioko klub eta elkarten jarduera sustatzea.
- **Gure kirol-, kultura- eta aisialdi-elkarteentzako diru-laguntzen egutegi bat finkatzea**, euren funtzionamendua bermatzeko eta haien lanari Audio suspertzeko daukan balioa aitortzeko. Horrez gain, egin beharreko tramiteak sinpletzea.
- **Kirola praktikatzeko eremuak etengabe hobetzea eta kirol-eremu berriak sortzea**: erabilera anitzeko espazioa Latiarron eta Gardeako kirol anitzetarako zentroa, Ellakuriko igerilekuak, etab.
- **Audio berreskuratzea diziplina askotako kirol-ekitaldietako erreferente gisa**, esaterako, atletismoa, txirrindularitza, etab.
- **Jaiak indartzea**, eredu plural, parte-hartzaile eta elkarte eta taldeek irekiaren aldeko apustua eginez.



7. Elkarrekin sortzea eta berritzea herritarrekiko harremanetan

Zer nahi dugu?

- **Gertutasuna, arintasuna eta efikazia sustatzea** audioarrei ematen zaien **arretan**.
- **Laudioarrak inplikatzeko udal plangintzari** buruzko hausnarketetan eta zerbitzuen prestazioan.
- **Gardentasuna eta kontu-ematea indartzea**, herritarrek udal informazioa atzitu dezaketela bermatuta.

Nola lortuko dugu?

- **Herritarrentzako Arretarako Leihatila Bakarra** martxan jartzea, audioarren eskaera eta behar guztiak hartzeko espazio gisa; beharrezkoa denean, arretaz-zerbitzu espezializatuetara bideratuko dira.
- **Izapideak sinpletzea eta prestazioa nahiz izapidetza teknologia berrietara moldatzea**, batez ere, urriaren 1eko 39/2015 Legearen, Administrazio Publikoen Prozedura Erkidearen nahiz urriaren 1eko 40/2015 Legearen, sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoaren xedapenei dagokienez.
- **Herritarrak promozionatu eta tutorizatzea teknologia berrien erabilerari** dagokionez udal zerbitzuetako izapidetarako.
- **Parte-hartze bidezko aurrekontuak indartzea** herritarrek nahi duten Audioren eraikuntzan parte hartzeko tresna gisa.
- **Udal Gardentasun Ataria hobetzea**, udal kudeaketari buruzko informazio guztia barne hartuta eta herritarren nahiz herriko gainerako eragileen esku jarrita.
- **Auzo Batzarrak birformulatzea** benetako hausnarketa espazioak eta gure auzoak hobetzeko benetako tresna izan daitezen.
- **Herritarrek parte hartzeko erregelamendu eta estrategia berria** prestatzea.
- Herritarrak udal zerbitzuetan inplikatzen **berrikuntza irekiko programa pilotua** martxan jartzea.
- **Herritarrei inkestak egitea aldizka**, udal zerbitzuekin duten gogobetetasun maila jakiteko eta horiei buruz duten pertzepzioaren berri izateko.
- **Alkate-udalburuarekin harremanetan jartzeko postontzi bat** martxan jartzea, baita hitzordu sistema bat ere, herritarrek euren kezkek helarazteko.
- **Tresna berria instalatzea herritarrek gorabeheren berri eman ahal izan diezaioten Udalari**, ahalik eta lasterren konpontzen saiatzeko.



8. Euskara eta ondarea, gure nortasunaren ardatzak

Zer nahi dugu?

- **Euskararen erabilera handitzea** herriko gizartearen eta ekonomiaren esparru guztietan.
- **Euskarazko udal zerbitzuak indartzea**, Udaleko langileen erabilera lehenetsita eta euskararen ikasketa eta indartzea sustatuta.
- **Laudioko ondare kultural eta etnografikoari daukan balioa aitortzea**, euskara jarrita udalerrri gisa dugun identitatearen elementu zentral gisa.

Nola lortuko dugu?

- Erabat aplikatzea **Euskaren Erabilera Normalizatzeko 2018-2022 aldirako Udal Plana**, langileen artean plana hedatuta eta, behin aldia bukatuta, ebaluazioa eginda.
- Laudioko herritarrek **Udal Euskaltegian ikasteko dituzten hobariei eustea**.
- Euskara gizarteratzeko eta udalerrriko esparru sozioekonomiko guztietan erabiltzeko **sentsibilizatzeko kanpainak** indartzea, hedapena handitzeko tresna berriak bilatzeaz gain.
- **Lan-jardunaldiak** bideratzea hainbat eragilerekin (instituzioak, eskolak, enpresak, elkarte soziokulturalak eta kirol arlokoak, etab.) , jardunbide onak identifikatu eta euskarari dagokionez programa berriak abiarazteko.
- **Euskararen erabileraren aldeko programa, ekitaldi eta kanpainetan parte hartzea**, euskara babesteko gainerako erakunde eta elkarteekin batera.
- **Euskarazko literatura lehiaketa** martxan jartzea ume, gazte nahiz helduentzat.
- **Herritarrei arreta eman behar dieten postu guztietan euskara ezagutu eta erabiltzen dela bermatzea**.
- Laudioko **udal artxiboa digitalizatzea**, gure ondarea zaindu eta tutoretzeko tresna gisa.
- Laudioko **mito eta tradizioei buruzko liburua** egitea.
- Bertoko **euskarazko hitzen hiztegia** argitaratzea.
- José Arrueri eta Laudioko **kulturaren beste pertsona garrantzitsuei omenaldia** egitea.
- Gure **ondare eta identitateari buruzko informazioa emateko panelak** ipintzea Laudioko leku zehatzetan.



9. Babesa eta garapen sozial integralaren aldeko apustua

Zer nahi dugu?

- Laudioko **herritarren ongizatea bermatzea**, arreta berezia eskainita kolektibo zaurgarrienei.
- Gizarteratzea eta Laudioko bizitzan **integratzea sustatzea kolektibo guztien artean**.
- **Bizimodu aktiboak eta osasungarriak** sustatzea, audioarren bizi-kalitatea hobetzen dutelako.
- Pertsonen **errespetuari, elkartasunari, tolerantziari eta duintasunari lotutako baloreetan** oinarritzen den herria garatzea.

Nola lortuko dugu?

- **San Rokezar klubaren espazioa handitzea**, Laudioko pertsona zaharren behar sozialetara eta aisialdi-beharretara moldatzeko, Ugarteko erretiratuen etxeko irisgarritasuna hobetzeaz gain.
- **Zerbitzuak kontratatzeko klausula sozialak txertatzea**, Udalarekin lan egiten duten eragileek jarduerak bideratzerakoan ikuspegi soziala kontuan hartzen dutela bermatzeko.
- **"Laudio: Hirugarren Adinekoentzat Atsegin" Plana diseinatzea**, besteak beste, gure nagusiek behar dituzten azpiegiturak, zerbitzuak eta jarduerak definitzeko.
- **Belaunaldi arteko laguntza programa berritzailea** martxan jartzea, udalerriko pertsona gazteak pertsona zaharrek kontaktuan jartzeko.
- **Sostengu Programak berrikustea**, egoera bereziki zailetarako arreta indartzeko.
- **#Mugilaudio** programaren barruko ekimen berriak etengabe garatzea, gizarte aktiboa lortzeko, batez ere, pertsona nagusien artean.
- **Umeentzako parkeak** hobetzea: mantentze-lan gehiago egitea eta jolasleku berriak sortzea.
- Urbanizatzeke esku-hartze guztietan erabateko **irisgarritasuna irizpideak** aplikatzea.
- **Lankidetz**a autonomikoa, estatala eta nazioartekoa bultzatzeko esparru geografiko eta sektoriala garatzea, esku hartzeko sistematika bat diseinatuta.
- Etxebarri basetxean **Haurreskola berria martxan jartzeko bideragarritasun-azterlana**.
- Osakidetzarekin eta beste eragile batzuekin lankidetzan aritzea **koordinazio soziosanitarioa bultzatzeko** gure pertsona zaharren arretan.
- **Gizarte Ekonomiako I Plana** diseinatu eta martxan ipintzea, elkarte solidarioekin, hirugarren sektoreko elkarteekin eta eskualdeko udalekin batera.
- Laudioko **pertsona nagusientzako jantoki sozial** bati buruzko azterlana.



10. Audio, gazte eta feminista

Zer nahi dugu?

- Audioko **emakumeen ahduntzea indartzea**, erabateko berdintasunaren aldeko apustua eginda esparru guztietan.
- **Etorkizunerako prestatua dagoen gazteria izatea**, etorkizunean aukerak izan ditzaten lan eginda eta, horrela, euren bizi-proiektuak bideratu eta udalerrian errotu daitezten.

Nola lortuko dugu?

- Audioko **Emakume eta Gizonen arteko IV Berdintasun Plana** martxan jarri eta inplementatzea.
- Ikastetxeekiko eta Audioko beste eragileekiko **lankidetzan indartzea gazteen artean tratatu onak eta emakume nahiz gizonen arteko berdintasuna sustatzeko**.
- Inguruneke eragile sozialekin lankidetzan aritzea **sexu aniztasuna aintzatesten laguntzeko ekimen berriak** sustatzeko, bereziki gazteen artean.
- **Emakumeen Kontseilua** sortzea, elkarte desberdinen ordezkariak han topa daitezten emakumeak gure gizartean duen rolari balioa aitortzeko eta emakume nahiz gizonen arteko berdintasuna lortzeko jarduerak bideratzeko.
- Emakume eta gizonen arteko **berdintasunaren ikuspegia txertatzea Audio Udalak zerbitzuak kontratatzeko pleguetan**.
- **Audioko II Gazte Plana** martxan jartzea, gure gazteek dituzten erronken azterlana barne hartuta eta Ekintza Plan bat taxutzea, Eusko Jaurlaritzaren IV Gazte Planaren ildo berean kokatua.
- Audio **UPV/EHU-ren udako ikastaroen egoitza** bihurtzea, gazteria garatzeko.
- Euskal Unibertsitate eta Lanbide Heziketako ikastetxeekin lankidetzan aritzea **prestakuntza-eskaintza gazteengana gerturatzeko**.
- Programak martxan jartzea **Audioko gazteen artean sormena bultzatzeko** esparru desberdinetan (musika, literatura, artea, etab.).
- **Ikasketa aretoak irekitzea** ikasleentzat liburutegian.
- **Gazteei ondasun higiezinaren gaineko zergaren (OHZ) hobariak** ematea.
- Erakundeekin lankidetzan aritzea eta **gazteen alokairua pizteko proiektu berriak** martxan jar daitezten.
- Audioko **Adikzioen Plan berria** martxan ipintzea, gaur egungoei jarraipena emateko.



11. Udal kudeaketa adimentsua

Zer nahi dugu?

- **Udal kudeaketaren bikaintasunerantz** aurreratzen jarraitzea, Udala efizientea eta Laudioko herritarren beharren neurrirakoa izateko.
- **Udal enpleguaren bitartekotasuna murriztea**, langileei kalitate hobeko enplegua emanda.
- Guztien ongia maximizatzeko moduari buruz hausnartzea, **udal baliabideak modu arrazionalan kudeatuta**, herritarrengan eragin positiboa izateko.

Nola lortuko dugu?

- **Aurrekontu estrategikoak**; urteko aurrekontuak aukera eman behar du ekimenak martxan ipintzeko beharrezko baliabideak izateko.
- **Ordenantza fiskalak eguneratzea**, berrikustea eta eguneko arauetara egokitzea, zerga, tasa eta prezio publiko guztiak aztertuta, eta horiek bermatzeko ikerlan ekonomiko eta finantzarioak eginda.
- **Lanpostuen Zerrenda (LPZ) berria prestatzea.**
- **Lan Eskaintza Publiko (LEP)** desberdinak egitea eta lan-poltsak eratzea Udalean behar diren langile-profilak sartzeko eta Udaleko bitartekotasuna murrizteko. Horrez gain, deialdien aurreikuspenak sei hilean behin jakinaraziko dira.
- **Laudio Udala Modernizatzeko eta Teknologia Berriak Txertatzeko Plana diseinatzea**, kudeaketa arinagoa, modernoagoa, efikazagoa eta efizienteagoa izateko, Arloen zeharkakotasuna ere areagotzeko.
- **Udalaren ondasunen eta higiezinaren inbentarioa** egitea, udal ondarea hobeto ezagutu eta kudeatzeko.
- **Arauk Garatzeko Plan bat diseinatzea**, eguneratu edota promulgatu beharreko ordenantzak eta arauak identifikatzeko (ordenantzak, Udal Antolamendurako Araudia, udal kode etikoa, etab.).
- **Zerga-bilketarako egutegi bat egitea**, horren bidez, Laudioko familiek aukera izan dezaten udal tasa eta zergak aurreratzeko, horrez gain, **"diru-zorro" sistema garatuko delako ordaintzeko.**
- **Erosketa Publiko berritzaileko ereduak garatzea**, ondasun eta zerbitzuak kontratatzea efizienteagoa izan dadin eta tokiko ekonomiari ere laguntzeko.
- **Udalerri arteko lankidetzak**: inguruneko udalerri eta erakundeekin proiektu bateratuak bideratuko ditugu, sinergiak lortzeko asmoz.
- **Udal ibilgailuak elektrifikatzeko plana** diseinatzea.
- **Udal langileen prestakuntza-plana** berrorientatzea, materia eta modalitate berriak erantsita.

Plan operatiboa egingo da urtero, zeinetan xehakatuko diren ekitaldi bakoitzean bideratu beharreko esku hartzeak; horrela, ekimenei lehentasunak eman ahalko zaizkie eta plangintza errealista eta egingarria egingo da, beharrezko baliabideak kontuan hartuta (giza baliabideak, baliabide teknikoak, eta ekonomikoak).

Planean jasotako esku-hartzeei **jarraipena egingo zaie sei hilean behin**, bakoitzaren egoera ezagutzeko.

Jarraipen horretan Audio Udaleko zerbitzu guztiek hartuko dute parte, herritarrei eta gainerako interes taldeei helarazteko Planaren egoera-ikuspegi orokorra lortzeko xedeaz. Horretarako, **Legegintzaldirako Planaren Jarraipen Batzordea** jarriko da martxan, Zeina alkate-udalburuak, eta zerbitzuetako zinegotzi ordezkariak osatuko duten. Hauek izango dira batzordearen egiteko nagusiak:

- 2019-2023 aldirako xedatu diren helburu estrategikoak betetzen direla zaintzea.
- Legegintzaldirako Aginte Taldea definitu eta eguneratzea.
- Proiektu eta esku-hartzeen ezarpen mailaren jarraipena egitea.
- Desbideraketen azterlana egitea eta, hala badagokio, neurri zuzentzaileak proposatzea.
- Planean jaso litezkeen proiektu eta esku-hartze berriak definitu eta zehaztea.
- Esku-hartzeak egikaritzeko dituzten eragile desberdinen bitartekaritza eta parte-hartzea koordinatzea.

Gainera, irekitzearen, gardentasunaren eta erantzukizunaren printzipioei jarraikiz, Legegintzaldirako **Planean barne- nahiz kanpo-komunikazioa eta -hedapena egiteko estrategia bat zehaztu da;** interes talde guztiei emaitzak atzitzeko aukera ematen zaie, betiere, bakoitzari dagozkion interes-esparruetan. Horiek horrela, Legegintzaldirako Planari dagokionez egiten den komunikazio ororen xedeak izango dira:

- Emaitzen jakinarazpena, ardatz eta helburu estrategikoen arabera.
- Arlo eta zerbitzuen araberrako emaitzen jarraipena.
- Aurrekontuen jarraipena.
- Xedatzen diren adierazleak betetzea.

Horretarako, hau da, legegintzaldirako finkatu diren helburuen betetze mailaren berri emateko, **Udaleko ohiko komunikazio-kanalak erabiliko dira** (udal webgunea, ZUIN, prentsa, etab.).



LAUDIO UDALA
AYUNTAMIENTO DE LLODIO